

# Aurkezpena

Euskal mitologiak gainerako herri eta kulturetan gertatzen den bezala, euskal mitologiaren oinarriak ere, alegiazko kontakizun, elezahar, eta antzinako heroien balizko egintza edo egiazko gertaeren kondairak dira; gehienetan, izadiaren indarra edo gizakia eta jeinuen arteko harremana kontatzen dute. Mitoak sailka daitezke kondairaren esanahia edo berez duten mezuaren arabera: Batzuk kosmosa edo lurraz kanpoko gaia dute, eta besteak, berriz, lurtarrak dira. Batetik, zelta, erromatar, bisigodo, arabiar eta franko-gaztelarrek gure kulturaren oro har izan duten eraginagatik; eta bestetik, eliza katolikoak bere alde moldatzeko egindako mendeetako manipulaziotatik egungo elezaharrak oso modu kritikoan irakurri behar dira. Are eta gehiago, antzinako alegiak ahoz aho mendeetan kontatu ondoren, aurrekoen arrasto idatzirik ez eta ezkutatzeko errazak zirela, eliz gizonen, batez ere, idatzian eman dutelako.

Euskaldunek zenbait pertsonaia edo izaki alegiazkori buruzko gertaerak sinesten zituztela, hots, istorio horiek elkarri kontatu dizkiotela mendeetan zehar. Izan ere, euskal pasadizoetako batzuk berdin-berdin ageri dira beste herrialde batzuetan ere; batzuetan elementu bat edo beste baino ez da berdina gertatzen, eta beste batzuetan agerikoa da, esaterako, jatorriz istorio bera denari tokian-tokiko bereizgarritasunak itsatsi zaizkiola, kontaketaaren itxura zerbait aldaraziz herriaren arabera. Inguruko herrien eragina ere nabarmena da eta ukaezina.

Elezaharren araberako genesisia zertxobait berezia da; lurraren alegiak erakusten digu Lurra dela gizakiaren bizilekua. Hortaz, gizakia ilunpean bizi zen hasieran, Lur baretatik ateratzen ziren jeinuen beldur. Jeinu horiek itxura askotan azaldu ohi ziren.

Informazio gehiena <http://www.amaroa.com/> web orritik hartu dugu.

[http://eu.wikipedia.org/wiki/Euskal\\_Herriko\\_mitologia](http://eu.wikipedia.org/wiki/Euskal_Herriko_mitologia) web orritik ere hartu dugu informazioa, adibidez, Mariri buruz informazio zati bat.

Eguzkiloreren informazioa <http://www.eguzkilorejoya.com/es/historia-y-leyenda> web orritik eta <http://mitologiavasca-itsas.blogspot.com/2009/03/mi-primera-entrada-va-estar-dedicada.html> web orritik hartu dugu.

Jainkoen informazioa <http://www.portalvasco.com/historia/histo5.html>. Mariren semeen informazioa <http://euskomitologia.blogspot.com/2010/03/mikelats-eta-atarrabi-ongia-eta-gaizkia.html> web orritik hartu dugu.

Lamien informazioaren zati bat

<http://centros.educacion.navarra.es/cpansoai/0809euskalmitologia.pdf> web orritik hartu dugu.

Gai hau aukeratu dugu euskal mitologiaren historia interesgarria iruditu zaigulako. Lan hau euskara sakontzeko orduetan egin dugu eta ordenagailuz egin dugu. Espero dugu zuei gure lana gustatzea.